



**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO GOBERNUAREN EUSKARABIDEA –EUSKARAREN
NAFAR INSTITUTUAREN ETA IPAR EUSKAL HERRIKO EUSKARAREN ERAKUNDE
PUBLIKOAREN ARTEKO EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKO LANKIDETZA
HITZARMEN PROIEKTUAREN LEGEZKOTASUN-TXOSTENA**

LGAKZ- LT 66/2017

I – AURREKARIAK.

Kultura eta Hizkuntza-Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, 2017ko maiatzaren 2ko datarekin, erreferentziarako Hitzarmen proiektuari buruzko nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENAREN egin dezan, eskaerak hurrengo dokumentazioa eransten duelarik:

- Hitzarmen Testua.
- Kultura eta Hizkuntza-Politikako Sailburuak jaulkitako memoria.
- Ekimena onesteko Gobernu Kontseiluaren Akordio proposamena.

Geroago, 2017ko ekainaren 7 datarekin, departamentuko txosten juridikoa helarazten zaigu.

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) atalean, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 71/2017 Dekretuaren 12.1.a) eta 14.1.a) artikuluetan.

Era berean, posible da seinalatzea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikulua ezartzen duenaren arabera Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiola egin beharreko txosten juridikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuak, erregelamenduz zehaztutako kasuetan.

Horren erregelamenduzko garapena, izatez, 144/2017 Dekretuaren bidez egin zen, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena, 2017ko maiatzaren 4an indarrean sartu zena, eta honen 13 artikuluan legezkotasun-txostenaren nahitaezkotasuna arautzen du, bai eta txostena eskatzen duen sailak bere txostena eman behar duela eskaerarekin espediente osoa bidali behar baitu. Hori bera 1995eko ekainaren 13ko Gobernu-Kontseiluaren Akordioak ezartzen zuen lehenago, legezkotasun txostena behar zuten ekimen eta xedapenen gainekoa. Bai eta, bestalde, Gobernu-Kontseiluak baimendu behar zituen eta haien negoziazio, izapidetze, harpidetza, argitalpena eta segimendua arautzen zituen 1996ko urtarrilaren 9ko Gobernu-Kontseiluaren Akordioak ere.

II - KONPETENTZIA ETA LEGEZKOTASUNA.

Gure iritzia emateko aurkezten den elkarlanerako hitzarmen proiektuak beharrezko aurrekaria du 2017ko martxoaren 29an Baionan Administrazio honek sinatu zuen euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren garatzeko, 2007-2010 epealdirako hitzarmen markoan. Hitzarmen marko hori Kultura eta Hizkuntza-Politika Sailuak izenpetu zuen batetik eta, bestetik, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak, euskaldun guztien hizkuntza gisa euskeraren sustapen alorrean eskumenak dituzten Frantziar Estatuko hainbat organismo publikoren arten partzuergo bezala eratutarik dagoena.

Aurrekoa kontuan hartuta, alde biko elkarlan horren legezkotasunari dagokionean eusten diogu aipatutako Hitzarmen Markoaren harpidetzari buruz orain gutxi egin genuen legezkotasun txostenean (2017/18 LT-an) esandakoari.

Oraingo ekimena aurrekoaren garapen lege hartu daiteke, zalantzarik elkarlan hitzarmen gisa kalifikatu daitekeena, norberaren eskumenak erabiliz euskararen sustapen materia berari dagokionez konpromiso zehatzagoak ezarriaz. Baina hirugarren sinatzaile bat batzen da ere, hau da, Nafarroako Foru Erkidegoaren Gobernuak, bere baitan dagoen EUSKARABIDEA-Instituto Navarro del Euskara-ren parte-hartzearen bidez. Partehartze horri buruz, berriz, egoki da geure egitea oraindik-orain denboran ur dauden aurreko beste legezkotasun txostenetan (48/2016 IL eta 73/2016 IL direlakoetan) egindako hausnarketak, kultur eta hizkuntza arloan ageriko interes komunak dituzten bi Autonomia-Erkidego horien arteko elkarlanari buruz, hau da, Nafarroaren eta Euskadiren, arteko elkarlanari buruz.

Legezkotasun txostenotan, administrazio eta erkidegoen arteko lankidetzaren sostengatzen duten eskumenak zehazteaz gain (ez dugu horren gainean esandakoa errepikatu behar), agerian jartzen zen ere Administrazio honek Nafarroako Foru Erkidegoa bezalako beste autonomia erkidego batekin hitzarmena sinatze aldera dauden izapidetze eginbeharrak, haren onespen, komunikazio eta ezagutzari buruzkoak.

Batetik, egoki da gogoraraztea, Gobernuari buruzko 7/1981 Legearen 18. artikulua e) letrak ezartzen duen bezala, derrigorrezkoa dela Eusko Legebiltzarrari komunikazioa egitea. Bai eta, halaber, Gorte Orokorrei ere, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 22.1 artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 145.2 artikulua araberak.

Oraingo lankidetzaren hitzarmenaren edukia honela egituratzen da:

1.- (Lehen klausula) Bere helburuaren formulazioa, generikoki azal daitekeena ondoren zehaztuko diren alorretan sartuta dauden programen garapen bezala, eta

2.- (Bigarren klausula) Delako akzioak zer bost sektore edo materiatarazuzentzen diren zehaztapena: Helduen heziketa eta euskalduntzea, Euskararen erabilaren sustapena,

Euskararen gaineko gogoeta eta laguntza, Ikerketa eta hizkuntzaren corpusa, eta Elkarlana Europa mailan.

Administrazio honentzat sortu daitezkeen izaera ekonomikoko eginbeharrei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren beharrezko aurretiazko txostena gogoratu behar da.

Sinatzaileen borondatearen autonomiaren emaitza da ere hiruko kolaborazioaren iraunaldia, urteroko luzapen automatikoarekin alderdietako edozeinek hitzarmena salatu ezik (testuko azkeneko xedapena eta hirugarren klausula). Eta borondate berearen emaitza dira ere hitzarmenaren segimendurako eta lortutako konpromisoen garapena ekarriko duten akzioen gauzapenerako bideak (laugarren klausula).

Hau nire txostena, bi mila eta hamazazpiko ekainaren zortzian Vitoria-Gasteizen ematen dudana, nire iritzia zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein iritziren menpe jartzen dudalarik.